

Omatofobia

Maddi Altuna Galfarsoro



Omatofobia

Maddi Altuna Galfarsoro

Julene Azpeitia 36. ipuin lehiaketa

2023

Zumaiako onenaren saria

2023ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Maddi Altuna Galfarsoro (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Lagun batek aurkeztu dio tipoa. *Ezagutzen duzue elkar? Ez, ezta? Ba tori opari bana! Joana, Jokin. Jokin, Joana.* Eskua luzatu diote elkarri, barrez. Zelestinak azkar egin du alde beste zirkulu batera, harro, egindako balentriarekin bihurri. Aurpegia katu. Lagun ederrak ditu Joanak.

Pandemia amaitu eta gero herritik kanpo egiten duten lehengo parranda serioa da bientzat ere. Covid-19ak, kalentura eta eztulak baino, bikoteen konpromisoen azkartzeak, hipotekatutako bizitzak eta haurrak mantalean eramateko motxilak ekarri ditu Joanaren ingurura. Aldiz, inoiz baino nerabeago dago bera.

Bero egiten du gaztetxean, eta kontzertuak oso-oso onak!, *kristorenak, inoizko onenak* izan dira. Halako euforia eta estasi giro bat nabari da giroan: dantzan ero, asko; begietan distira polit batekin gehienak; eta, *aspaldiko!*-ak eta elkarriketa arin zein sakonak han eta hemen.

Joana eta ezagutu berri duen tipoa barrara joan dira azkar –arraroa litzateke eskuak hutsik, besterik gabe, berriketan egotea–. Elkarren arteko ezagunen zerrenda errepasatu dute segituan, eta galdetu dute ea zergatik ez duten lehenago elkar ezagutu. Merkatua merke, eta bizitzeko gogoia soberan.

–Ze... erreko dugu zigarro bat kanpoan?

Joanak ez dio erantzun, baina bere begiek bai. Eta batera zeharkatu dute kez betetako aretoa.

–Tori... Surik bai?

Hartu dio zigarroa tipoari. Metxeroa bilatzeko poltsa guztia nahastu du, eta, nahi gabe, alboratu du emakume elegantearen performancea. Aurkitu du bat, eta, lotsatu antzean piztu dio zigarroa, eta topatu ditu haren begiak. Urdinak ditu begiak. Eta Joanari beldurra ematen diote begi urdinek. Begi urdindun gizonek.

* * *

Begi urdindun gizonak ez dira fidatzekoak, badute zerbait ilunetik begi urdin argiak dituztenek, esan izan du noizbehinka. Joanak inoiz ez du asmatu zenbateraino fidatu berak asmatutako teoriekin. Berak asmatu dituelako, batez ere. Baina teoriaren oinarriak ez direlako oso sendoak, baita ere. Egia esan, Joanak bere burutik ateratzen den guztia, guzti-guztia, jartzen du zalantzan. Askotan esan diote zora-zora eginda dagoela. Brometan. Eta benetan ere bai.

Teoria bat baillitza defendatzen du, baina. Barruak esaten dio emakumeak ez direla fidatu behar begi urdin argiak dituzten gizonekin. Eta horregatik esaten du ahots gora. Mundu osoak entzun dezan. Erdi-broma tonuan, baina altuan. Norbaiti bizitza salbatu diezaiokeen zerbait airean uzteko, badaezpada. Norbaitek, nahi badu, behar badu, heldu diezaion. Joanak askotan hitz egiten du erdi brometan. Gauza serioez ari denean, bereziki.

Dirudenez, munduan inork ez du sekula idatzi berak sentitzen duen horri buruz. Aurkitu zuen behin balio zion termino bat: omatofobia. Begiei *beldur irrazional eta gaixoa*.

Omatofobia dutenek beldurra sentitzen dute begiak ateratzen diren irudiei begiratzean. Kasu batzuetan, oso espezifikoa da, eta beldurra begien kolore jakin batera edo begien egoerara mugatzen da [...].

* * *

00:30ak pasatxo dira. Hotz egiten du kanpoan, eta barruan ahaztuak dituzte txamarrak. Bost segundoko isiluneak zarata gehiegi egin du Joanaren barruan, eta azkar hasi da edozer esaten.

–Gustatu zaizu kontzertua? –*Ze galdera basikoa, pentsatu du bere barrurako.*

–Buf, bai, asko! Behar nuen halako kontzertu bat... Luzeak izan dira azken hilabeteak e...

–Bai bai... Nik behintzat banuen aspaldiko jendea eta aurpegi berriak ikusteko beharra. Nobedade pixka bat edo...

Berez Joana gustura asko egon da etxean sartuta. Bizitzatik atsedena hartzeko aukera eman dio. Azken urteen zama zeraman soinean, eta etenaldi bat behar zuen. Joanak ez daki bere kabuz gelditzen, eta, halabeharrez pausari eman beharrak, pertsona batzuekiko distantziak, on egin dio. Baina ez dio hori guztia oraintxe ezagutu duen tipo bati braust botako.

Tipoa lasai asko dago elkarrizketa eta elkarrizketa arteko isiluneetan, baina Joana ez.

Zitzuan hasi da harira ez zetozen pasadizoak kontatzen, hitz-jario bizian:

–Ba, badakizu ze? Etxean geundela hauen abesti bat kantatu genuen behin balkoian. Ni gitarrarekin eta pisukidea pianoarekin. Egunero jotzen genuen zerbait. Musika-talde bat sortuko genuela ere sinistu genuen momentu batean, pentsa! Bueno, egia esan, hilabete guzti hauetan hamar mila proiektu izan ditugu esku artean... Bueno, esku artean... Esku artean ez. Geure buruetan. Ze, egunero aldatzen genuen ideiaz. Aurrena musika-taldearena, gero nobela bat idaztearena, guztion idazkiak eta marrazkiak bilduko zituen fanzine baten ideia geroago... Eta bueno, zerekin iritsi gara pandemia bukaerara? Ba ezerekin! Baina beno, egia da musikarena momentu batean serio hartu genuela. Ahotsarekin edozein soinu eta erritmo sortzeko aukera ematen duen mikrofono bat erosi nuen, pentsa! 300 euro balio zituen... Ba, badakizu non dagoen mikrofonoa, ezta? Gelako apal batean, orain dela gutxi erosi nuen kamera analogiko baten ondoan. Beti izan naiz pixka bat inpultsiboa, eta, egia da, baita, beti ateratzen zaidala egiteko urgenteagoren... –blaust, bat-batean, eskuan zuen basoaren oreka galdu, eta, busti egin du kamiseta guztia. *Joder, bai? Beti egin behar al dut zerbait erridikulua?, bere barrurako.*

Joanak askotan egiten du erridikulua. Erridikulu maitagarria ala patetikoa, kanpotik begiratzen duenaren arabera. Eskerrak poltsan beti hortzetako zepiloa, eta kulero eta kamiseta garbi bana eramaten dituen, badaezpada. Buelta erdia eman, kamiseta aldatu, duintasuna berreskuratzeko ariketa mentala egin, eta itzuli da elkarrizketara.

Bitartean, bestea, barrez. Baina ez barrez lehertzen; barrez, lasai. Joanak begirada atsegina antzeman dio tipoari, seduktorea, baina zintzoa. Isiltasuna berriro.

* * *

Joana itsu-itsuan fido da bere intuizioaz. Askotan huts egin dion arren. Eta tipoak urdinak ditu begiak. Baina urdin ilunak... Eta gainera, ezagutzen ditu begi urdinak dituzten pertsona jatorrak. Oso jatorrak. Jatorrak edo tristeak. Eta jator bezain tristeak. Bordeak ere bai. Hau da, iluntasuna ez darien begi urdin argidun pertsonak. Egia da baita, pentsatzen jarrita, pertsona bakarraren begiak bakarrik datozkiola gogora. Eta pertsona bakarra, bi begi, ez dira nahikoa teoria sendo bat osatzeko. Eta, egia esan, Joana nekatuta dago begi urdin argidunaren itzalarekin bizitzearekin.

Joana asko fio da bere intuizioaz, baina, badaezpada, interneten bilatu ohi ditu bere teoriei eusteko argumentuak. Ulertu ezin dituen gauzak, ulertu nahi ez dituen edo definitzea mingarriegi zaizkion sententzioak interneten kontsultatzeko ohitura du Joanak, ohitura pixka bat obsesiboa. *Ojos azules, ojos azules personalidad, rechazo ojos azules, ojos azules significado, ojos azules eneatipo.*

Ez du gauza espiritualetan eta interneteko blog merkeetan irakurtzen duena sinisten. *Tablerodun* pertsona da. Baina balio dion hori hartu egiten du, spamez betetako webgune batetik bada ere. Eta ez du patuan sinisten, baina hitz hitz bete zaio nerabezaroan euskara klaserako idatzitako ipuin txoroetako gertaera eta sentimendu bakoitza. Premonizio bat bailiran. Destinua bailitzan. Ez duena onartu nahi da berak jarraitu duela nerabezaroan bere buruarentzat idatzitako telenobelaren halako bertsio merke eta esajeratu bat.

Horren zergatia ere kontsultatu izan du interneten. Terapeutan ere bai. Eta asko hitz egin du bere lagunekin. Azazkalak jaten dituen bitartean. Joanak azazkalak jaten ditu. Eta azkar jaten du. Eta asko. Eta asko hitz egin. Eta azkar. Pentsatu ere hala egiten du: asko eta azkar. Gehiegi. Azkarregi.

* * *

–Ze, joango gara beste batera? –iniziatiba hartu du Joanak.

Txamarren bila sartu dira barrura, eta alde egin dute gaztetxetik, lagunak agurtu gabe. Euria hasi du oraintxe, eta tipoaren aterkipean jo dute ezagun gutxiago egongo den taberna baten bila. Kamiseta, kuleroak, eta hortzetako eskuila beti daramatza soinean, baina Joanak beti ahazten du aterkia.

* * *

Joanak lotsati itxurak egiten ditu hasieran, baina behin martxa hartuta gustura hartzen du kontrola. Berez nahiago luke lotsatiago agertu, suabeago, leunago, emeago... Nahiago luke modu diskretuagoan hitz egin, eta dantzatu, eta begiratu. Ez hain modu esajeratuan. Emeki portatu, leun hitz egin, eta suabe pentsatu. Zeren, Joana, beti da oso intentsua.

Eta badaki, gizonak ez dituztela nahi emakume intentsu eta traumatizatuak. Esan nahi da: gizonak ez dituzte emakume intentsuak paseatzera atera nahi. Oherako bakarrik nahi dituzte halakoak: *maitale* moduan, eta ez *neska-lagun* moduan. Beraiek traumatizatu badituzte ere.

* * *

Itxi dute aterkia, sartu dira bizkartzainak dituen pub-moduko taberna batera, eta utzi dituzte txamarrak izkina batean. 5 euro ordaindu dute garagardo bakoitza, eta tabernako txoko ilun batera egin dute alde. Garagardoa hotza dago behintzat, eta kristalezko basoak jarri dizkiete.

Egiten ari den doktoretzaren ingurukoak kontaktzen hasi zaio tipoa. Eta Joana isil-isilik (halako batean!), berak esango lukeen moduan, *txakur txiki* baten begiekin.

* * *

Joanak metaforak eta asmatutako hitzak, eta asmatu gabeko, baina gaizki erabilitako hitzak erabiltzen ditu gertatzen zaion edozer azaltzeko. Denbora guztian. Denerako. Bere lagunek ere bai.

Txakur txiki baten pare jartzen da pixka bat gustatzen zaion edonoren whatsapp elkarrizketaren parean, besteak noiz erantzungo zain, berak zer nahi duen ez dakienean ere, eta, gero, erantzuteko bi aste pasako dituen arren. *Runruna* edukitzen du gehiegi hitz egin, edo, hanka sartu eta gero. *Otsoa* deitzen diote begi urdin argidun tipoari, eta *arratoia* lagun bati min handia eman zion beste tipo bati. *Kaxki* egoten da askotan, eta *kaxkatekoak* ematen dio noizbehinka. *Lokera* deitzen diete terapeutei, eta *traumatologoa* psikiatrei. *Katu* egoten dira ostiraletan —batzuetan, asteazkenetan ere bai—, lagunekin *kaña txiki* bat hartzeko desatzen. *Kaña txikia* deitzen diote litro erdiko kañari, eta *parrandatxoa* eguzkia ondo esnatuta dagoenean amaitzen diren gaupasei.

* * *

Doktoretzatik pasa dira etxebizitza zein garesti dagoen komentatzera. 30 urteren bueltak dakarren noraezaz aritu dira luze, eta, momentuz, biak ere bakarrik, bikotekiderik gabe, ederki asko daudela esan diete elkarri. Berez, nahiko luketela pelikuletakoa bezalako harreman bat eduki, eta elkarrekin zahartu, eta munduari buelta eman, baina honezkero ez dutela horretan sinisten. Bizitza bakarra dela, eta ez gaudela hemen denbora galtzeko. Eta goizeko 04:00etan esaten diren moduko beste kontu asko.

Pixkanaka hasi dira elkarri begirada eutsi, eta, tarteka, lotsak hartuta-edo, begiak saihesten. Eta berriro, oraindik elkar ukitu ere egin gabe, begiak sutan dantzan jarri dira. Jarri dute normalean bietako inork norbere borondatez inoiz aukeratuko ez lukeen reggaetoi abesti bat, eta Joanak eman ditu pare bat pauso atzera, eta heldu dio eskutik tipoari, eta eraman du dantzaleku erdirantz. Motel, barrez. Gorputzak sugetuta eta begiradak katu. Eman du buelta Joanak, eta heldu dio besteak atzetik, gerritik. Eta eman dio musu lepoaldean. Eta eman du buelta berriro, eta joan zaio ahora zuzenean. Kank eman dute hortzekin eta hasi dira biak barrez lehertzen. Eta, orain bai, tentsio guztiak askatuta, egin dute salto elkarren ezpainera, eta hasi dira. Biak bat bailiran.

Joanaren gorputzeko tenperaturak goia jo du, eta parekoa apartatu egin du momentu batez. Arnasa hartzeko, mundura itzuli eta hankak lurrean jartzeko. Eta esan dio gela bat beretzako bakarrik duela lagun baten etxean, eta, nahi badu, gonbidatuta dagoela. Besteak erantzun asteburu osoa libre duela beretzat.

* * *

Garden agertzen ari da Joana, gardenegi. Hala agertzen da askotan, eta beharbada horrexegatik beragatik puskatu dute mila puskatan. Hauskor agertzeagatik, eta azkarregi eta gehiegi aritzeagatik. Eta horregatik, mila puskatan puskatu dutelako, agertzen da orain hain gogor. Eta horregatik egiten du salto hain azkar.

* * *

–Intimidatu egiten nau zure begiratzeko moduak. Ez zait inoiz gertatu...
–bota dio ezagutu berri duen tipoak, berezi sentiarazteko-edo.

–Gutxiegi intimidatzen *zaituztegu* egiten diguzuen guztirako... –pluralean, salto. Eta bat-batean hoztu egin du berak ere bilatutako egoera goxo eta atsegina.

–Barkatu, *joan* egiten zait. Askotan *kaxkatekoak* ematen dit, ze ez dut ulertzen ze egiten dudan *zuei* begira –errekifikatu du, erdizka, azkar. Pluralean.

Txakur txikiaren begiak tipoak jarri ditu oraingoan. Eta Joanak orduan egin du beste pauso bat atzera. Ez dakielako fidatu daitekeen parekoarengan ikusten duen begirada zintzoan. Begirada antzekoarekin manipulatu dutelako gehiegitan.

* * *

Joanak askotan egiten du hori. Salto egin, eta barkamena eskatu, segidan. Askotan *joaten* zaio burua, eta askotan ematen dio *kaxkatekoak*. Bereziki *haien* aurrean; hau da, gizonekin. Eta beti eskatzen die barkamena. Ondo bezatutako tigre baten antzera.

Behin, halako egoera antzeko batean Joanari galdetu zioten ea kartzelan egona zen. *Ez, zergatik?*. *Kartzelatik pasa denaren begirada daukazu*. Joanak ondo ulertu zuen zertaz ari zen parekoa. Ikusi izan ditu halako begiradak bere inguruan. Nahi baino gehiago. Barrura, atzera begirakoak. Badaki zein begirada den ikusten diotena, eta ez zaio gustatzen bere zaurgarritasuna hain agerikoa izatea.

* * *

Deserosoa izan da momentua, bereziki tipoarentzat. Ez zekien oso ondo zer esan, eta alde egin du komunera. Une berean, pubeko dj-ak gaueko azken abestia jarriko duela iragarri du. Eta Joana, han, bakarrik.

Argiak apur bat altxatu dituzte, eta bat-batean jarri dute hilabetez buklean entzun zuen abestia. Baxuek lurra dardarka jarri dute, eta melodia nostalgikoak beste nonbaitera eraman du Joana.

Begiak itxita, zirrara uholde batek hartu dio gorputza. Eskuak goian dantzan, malko potolo batek egin dio ihes masailetik behera, eta barrez hasi da gero. *I just wanna dance all night...* Neska ezezagun bat batu zaio bat-batean, sentsazio berak harrapatuta-edo. *I'm all messed up, I'm so out of line...* Hitzik esan gabe, musikaren erritmoan hasi dira dantzan bi ezezagunak, leun, barruko pisu guztiak sentitu, eta poliki-poliki askatu nahiko balituzte bezala. Kanpoko mundua desagertzen ariko balitz bezala. *Stilettos and broken bottles... I'm spinning around in circles...*

Kantuaren erdian, gau osoan ikusi ez dituen Joanaren bi adiskide elkartu dira dantzara, ezerezetik bezala. Lau neskek indarrez besarkatu dute elkar. Hasieran geldi, eta biribilean saltoka gero, oihuka abesten. Erdi-barrez, erdi-negarrez.

Alkoholak eta nekeak lagundutako momentu katartikoa argiak piztearekin batera itzali da. Eta han ikusi du tipoa, urrutira, irribarre bare batekin. Eta itzuli da berarengana, eta eskatu dio barkamena berriro. Eta eskatu dute azken garagardoa, eta hortxe egon dira tarte batez, pubeko beroan hotz. Eta azkenean iritsi da Joanak ez beste guztiek atzeratzea nahi luketen momentua, eta bota dituzte tabernatik guztiak.

Begi urdindun tipo bat du aurrean Joanak. Begi urdinak ditu, baina begi urdin ilunak. Esan nahi da, ez hain argiak, zeren begi urdinak ezin dira ilunak izan. Eta ez daki gustatzen ote zaion nola begiratzen duten. Berez gustatzen zaio, baina beldurra ematen dio. Beldurra ematen dielako gustatzen zaizkio? Begi urdinak ditu. Ohikoak baino ilunagoak, baina urdinak.

–Ez naiz fio begi urdinak dituzten gizonez...

Berez, esan nahi diona da, begi urdindun gizon batek, behinola, min handia egin ziola. Eta min egiten jarraitzen diola. Eta ez duela itzuli nahi min horretara. Eta ez diola inori horrelakorik desio.

Eta ez diola inori utzi nahi barruan sartzen. Min ematen dielako oroimenak, min barruak, gogoratzen dituen kontu guztiek, oroitzapen on eta txarrek eta ahaztuta duen guztiak. Errotik zeharkatzen dutelako traizioaren bizipenak, eromenarekiko beldurrak eta azaldu ezin dituen biolentziek.

Berari, berez, asko gustatzen zaizkiola begiak. Asko gustatu zaizkiola bere begiak, eta erraz irakurtzen dituela. Eta, berez, begi urdinei ez diela *fobia irrazional eta gaixorik*. Are, begi urdinek guztiz harrapatu izan dutela, irrazionalki eta modu gaixoan. Zerbait iluna ikusi zuelako horietan, zerbait irrazional eta gaixoa. Behin erabat nahastu zituela argia eta iluna, etxea eta espetxea. Iluntasun horretan oso goxo ere egon zelako. Eta etxean sentitu zelako kartzelan.

Tipoa ahaztua duela honezkero. Desintoxikatu zela aspaldi. Baina oraindik gorputzean dituela hark egindakoak. Eta ez duela itzuli nahi inoiz halako azpimundu batera. Baina beldurra ematen diola bere buruak. Eta batzuetan ez duela ohetik altxatzeko gogorik ere, eta askotan puskatuta sentitzen dela.

–Joana, ez daukagu batera erretiratzeko inolako betebeharririk e... Kristoren gaua izan da, eta plazer bat izan da zurekin topatzea.

Burumakur, malko potolo bat erori zaio masailetik behera. Amorru leun bat dauka barruan, indar gutxiko haserre bat. Tristura handia. Eta neke izugarria. Pisu isil bat... Eta oraindik gehiegi okupatzen dio gorputza.

–Gosalduko dugu elkarrekin, Joana?

–Bai, mesedez!

–*Portzierto*, eguzkia ateratzearekin batera urdindu egin zaizkizu begiak...

Musu eman dio kopetan, eta irribarre batekin erantzun dio Joanak. Besarkada estu bat eman dute, eta, han joan dira, lepotik helduta, gaupaseroz betetako taberna batera. Zelestina topatu dute bertan: *Jokin! Joana! Ja! Banekien ondo moldatuko zinetela!*